


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,3 igo dira 2025eko maiatzean

Urte arteko datuei dagokienez (2025eko eta 2024ko maiatza), kostuak % 1,1 igo dira

Eustaten datuen arabera, 2025eko maiatzean Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,3 igo da aurreko hilaren aldean. 2024ko hil beraren aldean kostuak % 1,1 igo dira.

Kostuak egonkor mantendu dira Eraikuntzan eta % 1,5 igo dira Ingeniaritza zibilean. 2024ko maiatzaren aldean, prezioak % 0,8 igo dira Eraikuntzan eta % 2,5 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

2025eko apirilaren aldean, lehengaien kostuak % 0,4 igo dira eta eskulanarenak, berriz, egonkor mantendu dira. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuak % 1,3 egin du gora eta eskulanarenak % 0,4.

Lehengaien kostuak egonkor mantendu dira hil artean Eraikuntzaren sektorean, eta % 2,0 igo dira Ingeniaritza zibilean. Urte arteko bilakaeran, lehengaien kostuak % 0,9 igo dira Eraikuntzan eta % 3,2 Ingeniaritza zibilean.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2025

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,3	0,3	1,1
Eraikinak	120,8	0,0	0,8
Ingeniaritza zibila	123,8	1,5	2,5
Lehengaiak	122,9	0,4	1,3
Eraikinak	122,2	0,0	0,9
Obra zibila	126,1	2,0	3,2
Laneskua	116,9	0,0	0,4

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Ekainaren 25a

Iturria: Eustat, Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengai nagusien prezioek urte arteko igoera handienak, 2025eko maiatzean, azpisektore hauetan izan dituzte: *Erauzketa-industriak* (% 7,0) eta *Material eta ekipa elektrikoek fabrikazioa* (% 4,8). Bestalde, *Koke-lantegi eta petrolio-findegietako* lehengaien kostua % 14,5 jaitsi da.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Maiatza 2025

	m / m-12
Ateratze-industriak	7,0
Kokeak eta petrolio flintzen	-14,5
Metallikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	4,1
Produktu metalikoek fabrikazioa, makineria eta ekipaok salbu	-6,0
Material eta ekipa elektrikoek fabrikazioa	4,8

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Ekainaren 25a

Iturria: Eustat, Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62